



8. AKTA

EZOHIKO UDALBATZARRA, 2010eko uztailaren 28an izandakoa.

HIRIGINTZA

7.- Antxo Iparra 01 Hiri Eremuan (Biteri Plaza) Babes Ofizialeko etxebizitzak sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren eta Pasaiako Udalaren artean eginiko hitzarmena amaitzea.

2003ko urriaren 29an, Pasaiako Udalaren eta orduko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren artean Lankidetzeta-hitzarmena sinatu zen, Antxo Iparra 01 (Biteri plaza) hiri-eremuan babes ofizialeko etxeak sustatzeko. Zehazki: babes ofizialeko 36 etxebizitza, erregimen orokorrekoak, eta azalera-eskubidearekin; 18 gizarte-etxebizitza, babespeko errentamendurako; eta 150 aparkaleku-plaza.

Pasaiako Udalak Eusko Jaurlaritzari aipatutako sustapena egiteko behar ziren lurzorua eta behar ziren eraikuntza-eskubideak eman zizkion, eta Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu zuen eraikuntza eta urbanizazioa sustatzeko, eta dauden eraikinak eraisteko eta Udalari honako hauek emateko: merkataritza-lokaletarako 230 m², eta etxebizitzei atxikita ez dauden garaje guztiak (96). Bi administrazioek adostu zuten hitzartutako eskubide, betebeharrak eta lagapen guztiak guztiz baliokideak zirela.

Eraikuntza-proiektuak idazteko fasean eta hitzartutako jarduketan hasieran, aldez aurretik aurreikusitako ez zeuden zenbait gorabehera egiaztatu ziren sustapenari eta sinatutako hitzarmenari sakon eragiten ziotenak. Horrez gain, parte-hartze prozesuan herritarrak proiektuaren aurka azaldu ziren.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak eta Pasaiako Udalak elkarrizketak izan dituzte, eta bi administrazioek sustapen horrekin aurrera ez egitea adostu dute; are gehiago, kontuan izanda Antxo Hegoa (Luzuriaga) HIEn etxebizitza babestuen sustapen zabala egikaritzen ari direla; hori ere Eusko Jaurlaritzaren eta Pasaiako Udalaren lankidetzaren ondorioz.

Hori dela eta, Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi gehienek adostasunez eta 2010eko uztailaren 14ko Hirigintza Batzordearen irizpena aztertu ondoren

ERABAKI DU

LEHENA.- Deuseztatzea 2003ko urriaren 29an Pasaiako Udalaren eta orduko Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren artean sinatu zen lankidetzeta-hitzarmena, Antxo Iparra 01 (Biteri plaza) hiri-eremuan babes ofizialeko etxeak sustatzeko helburua zuena. Hitzarmena sinatu zuten alderdiei ez dagokie inolako ordainik, hitzarmenean zehaztutako eskakizunak ez betetzeagatik.

BIGARRENA.- Baimena ematea alkate andreari Elkarlanerako Hitzarmena suntsitzeko.

- Aktan jasoak gera dadin, bozketaren emaitza hau izan da: HAMAR (10) aldeko boto, Pasaiako EAE-ANV (7) eta EAJ-PNV (2) taldeetako zinegotzietatik, eta atxiki gabeko zinegotzi Miriam Canorena (1); LAU (4) aurkako boto, PSE-EE-PSOE (4) taldeko zinegotzietatik; eta abstentzio BAT (1), Ezker Batua-Berdeak (1) taldeko zinegotziarena.

- Hitzartzeen atalean ondokoak esan dituzte:
- Miriam Cano andreak uste du, akordioan konpentsaziorik izango ez dela edo kalte-ordainik ez dela eskatuko jasotzen den arren, Eusko Jaurlaritzak bidalitako idatzia ez dela hain zorrotza, eta egindako inbertsioa kontuan hartzeko eskatzen dela.
- Idazkari jaunak jakinarazi du Etxebizitza sailburuordearekin egindako bileretan izan zela, eta ziurtatu du hura argia eta zorrotza izan zela kalte-ordainik ez eskatzeari dagokionez. Cano andreak aipatu duen adierazpen hori bileretan ere egin zuen, eta haren iritzian, horrekin esan nahi du obretan gerta litezkeen gorabeheretan udalak kontuan hartu behar duela egin den ahalegina.
- Pombo jauna bat dator idazkariak adierazitakoarekin, eta erantsi du udalak ere galdu egin duela hitzarmena deuseztatzean. Adierazi du parte-hartze prozesuak zapore garratza utzi diola, ez hark nahi zuena atera ez delako, baizik eta bozketa egunean jendearen ahotan entzundakoek pentsarazten diotelako agian mundu guztiak ez duela zuzen jaso informazioa.
- Izaskun Gomezek xehetasun hau eman du: nik ez dut inoiz esan talde sozialistak aldeko botoa emango zuela, hitzarmena deuseztatzeagatik kalte-ordainik eman beharrik ez zegoela baieztatuz gero, baizik eta baldintza hori derrigorrezkoa zela PSE-EE-PSOE deuseztapenean pentsatzen hasteko.

Uste du Biteriri buruzko hitzarmena ez dela ona, ez aurreikusitako etxebizitza kopuruagatik, baizik eta aurreikusten diren aparkaleku plazengatik; izan ere, haren iritzian zaila da etorkizunean hori gauzatzea.

Galdeketari dagokionez, haren taldeari ez zaio iruditzen oso adierazgarria denik, ez behintzat botoa aldatzeko modukoa.

Azkenik, Arau Subsidiarioetan erabaki zenarekiko errespetuaz galdera egin du, orduan ere antxotarren parte-hartze handia izan baitzen.

- Idazkari jaunak, esandakoak ikusita, eta gaizkiulertuak saihestearren, proposatu du azken zatia aldatzea, eta honela jartzea: Ondokoa dioen tokian: “kontratuaren alderdiei ez zaie inolako konpentsaziorik aitortzen”, hau jartzea: “alderdiek ez dute inolako kalte-ordainik eskatuko, bertan aurreikusitako betebeharrak ez betetzeagatik”.
- Miriam Cano bat dator lehen esandakoarekin, hau da, aparkaleku plazak galtzea negatiboa da, eta horiei Usozen galdutakoak erantsi behar zaizkie; hala ere, uste du gozamenerako espazio bat irabazi dela, eta horrek hitzarmeneko galerak konpentsatzen dituela.
- Alkateak irizpena bozketan jarri du, idazkari jaunaren aholkularitza juridikoak proposatutako aldaketarekin.